



3 UDALA
Ekonomikoki 2013a positiboan itxi du udalak

Estitxu Alkorta Ogasun saileko buruak asteartean Lasarte-Oriako udalaren 2013. urteko likidazioa aurkezteko agerraldia egin zuen. Milioi bat euro baino gehiagoko superabita dagoela eman zuen jakitera EAJko zinegotziak eta honi esker, herrian inbertsio batzuk egin ahal izango direla aurreratu zuen. Udalak iaz 20,8 milioi euro sartu zituen eta 19,5 milioi euro gastatu.



4 KULTURA
Antzerki eskaintza asteburu honetan kultur etxean

Helduentzat gaur antzerki amateurra bultzatzeko ekimenaren baitan, Manuel Lekuonan Berako Emaitza antzerki taldearen "Esperando a la inglesa" antzezlanaz gozatu ahal izango da. Bihar berri haurren txanda izango da. Gorakada taldeak Aladino lanaren moldaketa ekarriko du herrira. Saioa 18:00etan hasiko da.

II. Aste Musikala ospatuko da Iparraldeko Kalakan taldearen kontzertua izango da apirilaren 4ean



Asteazkeneko aurkezpenaren aholku mahaiko elkarrekin hainbat ordezkari izan ziren ekimena babesten.

Aurten herriko elkarte ezberdinen adostasunarekin bigarren Aste Musikala bi asteburutan zehar izango da, martxoaren 28, 29 eta 30ean eta apirilaren 4 eta 5ean. Madonnarekin biran egondako Kalakan taldearen kontzertuaz gozatu ahal izango da besteak beste, Manuel Lekuonan.

Bigarren urtez Aste Musikala antolatu du Kultura sailak herriko Danok Kide, Xumela, Zero Sette, Alboka, SuBerri eta Musika Eskolaren laguntzarekin.

Boris Nogales zinegotziak asteazkeneko agerraldian azaldu bezala, iaz musika aholkulari mahai bat osatu zuen herriko taldeekin eta bertan erabaki zuten Manuel Lekuonako musika programazioari indarra emateko helburuarekin, lehenengo Aste Musikala antolatzea.

Elkarteko ekarpenei izan Ruper Ordorikaren kontzertua gehitu zion Kultura sailak eta orokorrean, balorazioa oso positiboa izan zela aipatu zuen zinegotziak.

Duela hilabete batzuk, biler bat egin zen elkarteekin eta ekimenari jarraitutasuna ematea beharrezkoa zela ikusi zen. Horrela bigarren Aste Musikala antolatzeari ekin zitzaion. Elkarteek bi asteburuetara luzatzea proposatu zuten eta hala izango da, martxoaren 28, 29 eta 30ean eta apirilaren 4 eta 5ean.

Juantxi Ugarte teknikariak azaldu zituen egitarauaren nondik norakoak. Kontzertu guztiak Manuel Lekuonan egingo dira eta lehenengoa iaz gaixotu eta bertan behera utzi behar izan zen Ainhoa Merceoren izango da. Martxoaren 28an, 20:00etan Alberto Saezen laguntzaz, ahots eta pianoa emanaldi berezia eskainiko dute proiektio baten laguntzarekin.

Martxoaren 29an 20:00etan, Arimaz Kamara orkestra eta Santa Zezilia abesbatzaren emanaldia izango da. Lehenengoa Tolosako Musika eskolako ikasle zein irakasle batzuk osatzen dute. Bi taldeek zuzendari bera dute, Kepa Martinez de Albeniz. Honek Europako talde batzuetan lan egin eta kontzertu politak eskaintzen dituztela aipatu

zuen Juan Mari Egizabal Danok Kideko kideak. Entzuleen gustuko izango dela ere azpimarratu zuen.

Martxoaren 30ean 12:00etan, Zero Sette akordeoi orkestra eta Illumbe arituko dira eta kontzertuko harraren eta talde aldaketan Musika eskolako trikitilarien doinuak entzun ahal izango dira. Apirilaren 4ean berri, Iparraldeko Kalakan talde entzutetsua izango da Manuel Lekuonako oholtzan 22:00etan. Sarrerak dagoeneko erosi daitezke, Interneten 5,40 euro eta leihatilan 6,60 euro.

Asteari amaiera emango dio martxoaren 30ean 20:00etan Musikeneko Metal Ensemble taldeak.

Kultura saileko ordezkariak herritarrei kontzertuetara gerturatzeko gonbita luzatu nahi izan zieten agerraldian.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Mailu Arruti

Denbora

Bakoitzak bere buruarekin, bere gorputzarekin, bere diruarekin bere denborarekin, nahi duena egiten du. Bai jauna.

Baita gehiengoaren ustez alferrik galtzea bada ere.

Denboraren atalean sakondu nahi dut gaurkoan. Irudipena daukat jende askok denbora asko daukala.

Urte gehienek 365 egun dituzte, 24 ordukoak. 8832 ordu ditu urte batek. Har dezagun pertsona estandar bat. Egunean 8 ordu lo egiten dituena, urtean, 2920 ordu lo. Lanaldi osoz egiten duena, (8 ordu). Urtean erdi mailako lan hitzarmen batek 1700 ordu ditu. Jo dezagun, etxeko lanetan ere parte hartzen duela eta egunean 2 ordu eskaintzen dizkiola zeregin horiei, urtean 730. Kenketak egin da 3482 ordu geratzen dira. Zati urteko egunak.... 9'5 ordu eguneko. Ahaztu zait, jaten eta joan etorrietan ere denboratxo bat joaten zaigula, eta asteburuetan denbora libre gehiago izaten dela aste egunetan baino e.a.

Hasieran esan dugun bezala bakoitzak berearekin nahi duena egin dezake. Orain, zenbat jende dago etekin gutxi ateratzen diona bere denborari....

Bizitza begien aurrean pasatzen zaie eta ez dira konturatzen. Nire ustez, denbora alferrik galtzen, eta ezertara iritsi ezinik gainera, ze inoiz zerbitutara gonbidatzen badituzu, ezin dute. Okupatuta daudela esaten dute. Denbora alferrik galtzea ere zeregin al da?

Beste zenbait ezagutzen dut ordea, badirudi denetara iristen direla. Historia guztietan sartuak daude, eta beti prest.

Bakoitzak bere denbora bere buruari bakarrik eskaintzea zilegi al da ala komunitateari ere eskaini beharko genioke zerbait?

Zorion agurrak



Eñaut

Zorionak Piratilla eta Hamar muxu Eneritz eta familiaren partetik!!



Markel

Zorionak etxeko 'terremotoarentzat' eta lau muxu potolo familia osoaren partetik.



Iugatz

ZORIONAK maittia. Jadanik 5 urte goxo zurekin. Ondo pasa. Muxu asko aita, ama eta familiaren partetik.



Emilio

Zorionak familiaren partetik. Berrogeitahiru muxu txokolatezko.



Nathaly

Zorionak etxeko sorginari zure guraso eta aitona amonen partetik.



Sergio eta Aimar

Zorionak gure etxeko erregeei!!! Txokolatezko 11 eta 7 muxu pottolo!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garajea alokatu edo saltzen da. Zuma-buruko Liberto eraikuntzan. Bi kotxeentzako lekua du. Harremanetarako, 669 813 035 edo 677 501 906.
- Garajea alokatzen da Hipodromo etorbidetan. 943 36 24 72
- Lasarte-Orian pisu kompartitu batean gela alokatzen da. 250 euro hilabetean. Erdigunean. 600 612 085.

Salerosketak

- Lehen jaunartzeko mutilen jantzia, taila 10 eta surferako neopreno jantzia, S tamaina saltzen ditut. Egoera onean. 943 363 371.
- ASUS TF101 tableta salgai. Teklatua duen tableta da. 16Gb. 1024mg RAM. HDMI eta USB. Androidekin funtzionatzen du. 635 205 393

Lan-eskaria

- Emakumea lan bila dabil. Garbiketa lanak edo pertsona adinduen zaintza lanak egingo lituzke. 646 113 310.
- Nagusien zainketa interna bezala lan egiteko emakumea prest. Nimia 693 986 164
- Emakumea eskaintzen da interna edo orduka pertsona adindua edo haurrak zaintzeko. 656 303 563.
- Emakumea eskaintzen da astelehenerik ostiralera gauz pertsona adindua zaintzeko. Esperientzia eta referentziak. Gladis 699 820 299.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adindua zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Esperientzia du. Harremanetarako, 610 147 291.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edo haurrek, zein pertsona adindua zaintze-

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ane Latorre Goyaran, martxoaren 8an.
- Aner Aristondo Oliva, martxoaren 7an.
- Ana Maria Martin Madina, martxoaren 6an.

Heriotzak

- M^a Dolores Sarratea Ustariz, martxoaren 18an, 88 urte zituela.
- M^a Rosario Girones San Martin, martxoaren 14an, 65 urte zituela.
- Luisa Terraza Reyes, martxoaren 12an, 89 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 21	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 22	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 23	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 24	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteartea, 25	Gandarias-Urribi, l. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 26	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 27	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8,
Hernani, Tel.: 943 336 022

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Ezazgure, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

Publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Murioa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Aster Odriozola, Jone M.,
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

POLITIKA

2013 urtea positiboa izan zen

Inbertsio handia egingo da kale asfaltatzean

Estitxu Alkorta Ogasun sailko batzorde buruak asteartean Lasarte-Oriako udalaren 2013 urteko likidazioa aurkeztu zuen. Milioi bat baino gehiagoko superabita dagoela eman zuen jakitera eta honi esker, herrian inbertsio batzuk egingo direla aurreratu zuen.



Estitxu Alkorta Ogasun batzordeko burua aurkezpenean

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak 2013 urteko aurrekontuaren itxieraz irakurketa oso positiboa egin zuen astearte eguerdian.

Estitxu Alkorta Ogasun sailko buruak eskaintako prentsaurrekoan Udalak 2013. urtean 1,2 euro aurreztu dituela eman zuen jakitera. "Udalak ia 20,8 milioi euro sartu zituen eta 19,5 milioi gastatu," adierazi zuen Alkorta.

Emaitza hauek aurrekontuetan egindako lanketa, jarraipena eta eramandako kontrol zorrotza eta zehatzari esker lortu direla ere azpimarratu zuen.

Inbertsioak

Superabit honi aurreko urteetako gerakinak batzen bazazkio 1,8 milioi ditu Udalak.

Ogasun batzordeko buruak ohartarazi zuenez, Gobernu zentralak ezarritako neurri murriztaileen ondorioz gerakin honen erabilera mugatua da. Hala ere, honek

gaitasuna ematen dio Udaltxeari eguneroko gastuei aurre egiteko eta baita 2014ko aurrekontuetan aurreikusi ez diren gastu berriei ekiteko ere.

Horregatik, asteartean lehen orduan egin zen Ogasun Batzordean hainbat inbertsio berri egiteko baime-na eman zela jakinarazi zuen, Tximistarreta urbanizazioa, Pablo Mutiozabal kalea, Kale Nagusia, Pintore Kalea eta Juan de Garai kaleak asfaltatzea eta bi ekipamendu partida, bata kirol ekipamendurako eta bestea Manuel Lekuonarako.

Inbertsio hauek Udaltzarrean onartu behar dira eta onetsiak izanez gero, lanak aurrera egingo liratekeela aurreratu zuen Estitxu Alkorta.

Udalak gainontzeko gerrakina etorkizunean sor ditezkeen inbertsioetarako erabiliko duela ere jakitera eman zuen.

Exekuzio handia eta zorra

Era berean, 2013 urteko aurrekontuaren exekuzio maila handia izan dela aditzera eman zuen, %90,47ko exekuzioa gastuetan eta %90,10ko exekuzioa sarrere-tan eta aurrekontuan aurreikusia zegoen milioi bateko mailera eskatu ez dela ere aipatu zuen.

Bestalde, Banku eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zegoen zorra 1.407.717,6 eurotan jaitsi dela eta zor bizia 3.428.027,40 eurokoa dela adierazi zuen.

Gainera, konparaketa bat ere eskaini zuen, 2011. urte amaieran Udaltxeko zor bizia 6.227.120,63 eurokoa zen, beraz bi urtetan ia 2.800.000 eurotan murriztea lortu du Udalak.

"Etorkizunean inbertsio berriei ekiteko aukera ematen digute. Benetan oso datu itxaropentsuak dira lortu direnak," atxiki zuen Ogasun sailko buruak.

IKASTAROA

Enpresa nola sortu eta kudeatu

Apirilaren 2 eta 3an Manuel Lekuonak, bai ekintzaileei baita lan merkaturatzeko helburuarekin autoenpleguan aukera ona ikusten duten herritarrei ere zuzenduta dagoen ikastaroa eskainiko da. 6 orduko ikastaroa izango da eta bi txanda egingo dira interesa dutenen mesedetan, alde batetik goizez 10etatik 13etara eta bestetik arratsaldean 16etatik 19etara. Gertu Asesores enpresak emango du eta eskualdeko Udalek eta Lanbide bulegoek sustatua da. Parte hartu nahi izanez gero informazio gehiago eta izen ematea Nerea Yurrebaso 943 30 42 21 telefonon, ekinean@andoain.org -ra mezua bidali edota Eskualdeko Lanbideko bulegoetan egin ahal izango da.

INGURUGIROA

LED argiak kaleetan

Lasarte-Oriako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako sailak kale-argiteria berritzeko unean, LED teknologian oinarrituriko aurrezpen energetikoaren aldeko apustua egiten ari da. Kale-argi berriak Bekoerota kalean eta Somoto ibilbidean jarri dira. Argiteria berriak sei aldiz gutxiago kontsumitzen du eta lehen baino argitasun maila altuagoak emango ditu.

Bestetik, goiko hemisferiora isuritako kutsadura luminikoa murriztu da, egungo %34tik etorkizunean %1 baino gutxiagora pasaz. Obra eta Zerbitzuetako sailak jakitera eman duenez, bertatik kendu diren argiak etorkizunean zerbitzuetatik kanpo geratzen diren zaharrak aldatzeko balioko dute. Beraz, bererabilpena ere bultzatuko du Udalak.



KULTURA

Feminismoa eta literatura aztergai

Asteartean irakurle txokoaren saio berria izan zen. Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan bildu ziren herritarrak Virginia Woolf-en "Gela bat norberarena" lanari buruz mintzatu ziren.

Entsegu honetan Woolf-ek emakumeen genero-rolak aztertzen zituen idazleak, sortzaileak eta fikziozko pertsonaia diren aldetik. Ondorioz, entseguak, Woolf-en estiloa, fikzioa eta errealitatearen nahastea, 20. hamarkadako emakumearen egoera, literatura eta beste gai batzuk ere jorratu zituzten.

Hurrengo saioan, apirilaren 15ean, asteartean 18:30ean Eider Rodriguez idazlearekin solasaldia izango dute literatura txoko honetan. Aurretik "Katu jendea" liburua aztertuko dute.

LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

Zozketak badu irabazlea

Lasarte-Oria Usurbil institutuko DBH 4. mailako gazteak kurso amaierako bidaia prestatzen ari dira eta dirua lortzeko zozketa jarri zuten martxan. Atzo jakinarazi zen zorbaki irabazlea, 3040.

Saria Martin Berasategui jabetxean bi pertsonentzako bazkari edo afaria da. Honetaz gozatzeko, onuradunak txartelan zehaztuak dauden pausoak jarraitu behar ditu.

IKASTAROA

Ikastaro berriak emakumeen zentroan

Lasarte-Oriako Sexuen arteko Bizikidetzarako Emakume Zentroak bi ikastaro berri egingo ditu. Izena ematea 943363958 telefonora deituz, emakumezentroa@lasarte-oria.org helbidera mezua bidaliz, edo zentroa gerturatuz egin daiteke.

"Zer ote da feminismoa?" martxoaren 26an izango da, asteazkena, 15:00etatik 17:00etara. Ikastaro honetan sexua, generoa, patriarkatua, sexu genero sistema, sozializazio berezia landuko da besteak beste. "Erotika eta sexualitatea menopausian" izango da bigarren ikastaroa eta martxoak 27, apirilak 3 eta 10, 15:00etatik 17:00etara egingo da. Menopausiaz modu positiboan, gorputz sexuatuaz eta aukera erotikoei helduko zaie honetan.

Euskal Krosa igandean

Euskara eta kirola bultzatzeko helburuarekin, Eneko Kastro LOKE-ko atleta gaztearen omenezko XVII. Euskal Krosa egingo da igandean Atsotak parkean.

11:00etan hasiko da Landaberriko urtero antolatzen duen jaialdia eta honetan asko izango dira ohi bezala, parte hartuko duten herriko neska eta mutilak.

Urteroko izaera mantendu du aurtengoan Euskal Krosak eta amaieran ez da onen-tzat saririk izango.

Hori bai, lasterketa guztiak azaletzean, hainbat sari zozketatuko dira.

Haurren artean lehiakortasun



Euskal Krosaren parte hartze handia izan zen.

sunaz haratago, parte hartzea eta haurrek kirola eginez gozatea dute helburu antolatzaileek.

Adinka banatuta, distan-

tzia ezberdineko hainbat lasterketa egingo dituzte parte hartzaile gazteek igandean Atsotak parkearen inguruan sortuko den festa giroan.

Aladinoren mundu liluragarrian barrena

Gaur "Esperando a la inglesa" antzerki amateurrez gozatu ahalko da Manuel Lekuona

Asteburu honetan antzerki gozatzeko aukera izango da Manuel Lekuona kultur-etxean. Helduek gaur antzerki amateurra ikusi ahalko dute, Emaizta taldeak "Esperando a la inglesa" antzezlan taularatuko du. Bihar berriz, haurren txanda izango da. Gorakada teatroa taldeak Aladino eta mila eta bat gauletako mundua ekarriko du Lasarte-Oriara.

TXINTXARRI

Aladino, jainua, Yafar magoa... 1001 gauletako mundua Manuel Lekuona kultur-etxera iritsiko da bihar. Lasarte-Oriako haurrek Gorakada teatroaren eskutik, Aladinoren istorioaz modu desberdinean gozatzeko aukera izango dute arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Gorakada teatroak Aladino ipuin klasikoaren moldaketa egin eta taularatu du.

Antzerki honetan Aladino ume berekoia da eta heldu egin behar du bizitzak eskaini diezakioken gauza liluragarriak merezi ahal izateko.

Aukera horiek, aurkitzen duen lanpara eta barruan dagoen jenuaren bitartez magikoki lortzen saiatuko da.

Aladinon alfonbra, 1001 gauletako jauregia, Jazmin, Sultana... ezagutu eta milaka abentura biziko dituzte bihar kultur-etxeko areto nagusira hurbiltzen diren haurrek.

Aktore eta txotxongiloen lana, umorea eta magia nahasten duen antzerkia aurkezten du Gorakada teatroak. 1001 gauletako mundu liluragarrian haurrak murgiltzeko musika, mugitzen den eszenografia, hondarra, oihalak, itzal jokoak... prestatu ditu.

Ipuin magiko hau euskaraz bizi nahi duten haurrek bihar dute aukera Manuel Lekuona. Sarrerak eskuragarri daude internet bidez, 2,70 euro edo leihatilan, 3 euro.

Antzerki amateurra

Bestalde, gaur 21:30etatik aurrera, antzerki amateurrez gozatzeko aukera berria izango da. Berako Emaizta taldeak "Esperando a la inglesa" lana eskainiko du Manuel Lekuona.

Honetan Doña Rosaren istorioa azaltzen zaigu. Betidanik bere ilusioa Pirinioetako hotel baten jabea izatea izan da. Azkenean lortu egin du eta pozez gainezka dago.



Aladino, lanpara, jainua... magiaz betetako mundua dakar bihar Manuel Lekuonara Gorakada teatroa taldeak.

Gauzak bere bidetik joateko langile gaituenak kontratatu ditu. Gaur inaugurazio eguna da eta hotela bezeroz betetzeko irrikatan dago. Gauzak korapilatuko dira eta espero ez zuen moduan bukatuko dira.

Antzerki hau Lasarte-Oriako Kultura sailak hainbat elkarterekin batera antolatua duen antzerki amateur zirkloaren barruan dago kokatua. Sarrera gaur 5 eurotako izango da eta Emakumeen Zentroko antzerki taldearentzat izango da eskuratutako dirua.



Gaur umorea eta nahaste-borrastea nagusi izango da Emaizta taldearen antzerkian.

Animalien araudi berria aurki indarrean

Ohiko udalbatzarrean Animaliak babesteko eta edukitzeko Udal araudia behin betiko onartu zen. Orain helegiteak jartzeko epea ireki da eta behin hau amaitzean indarrean jarriko da.

Animalien babesa bermatu, jabetza arduratsua eta animalien salerosketen kontrola eramatea du helburu araudiak.

Honela animalien jabeek kontuan izan beharreko hainbat betebeharrak eta baldintza zehazten dira, baita eraso baten aurrean jarraituko diren pausoak ere.

Animalia arrisksuak

Animalia arrisksuen jabetza ere arautzen du.

Lizentzia eskaerak, txakurren erregistroa eta jabetzaren baldintzak agertzen dira bertan.

Honetaz gain, animalia heziketa edo haztegi zentroek jarraitu beharreko neurri eta arauak zehazten dira, baita animalia erakusketa eta lehiaketak ere.



Udalak behin behineko araudia aurkeztu zien herritarrei. Hauek haien proposamenak eta keak jakitera emateko aukera izan zuten.

Pasatzeko lekuak

Era berean, txakurrak libre ibili daitezkeen eremu eta ordutegiak finkatzen dira. Udalak asmoa du hauek zehaztuz informazio panelak jartzeko.

Arrisksuak ez diren animaliak edo erasotzeagatik erregistraturik ez daudenak libreki ibili ahalko dira betiere jabea lagun dutela, hiri ingurumenean, hau da, Goiegi

Ibarran Pinutegi kalea 2 eta 10 zenbaki artean, Goiegi mendi hegalean, Plazaola parkea, Orián Zelaialde 1 eta 21 zenbaki arteko mendi hegalean eta Orián Etorbideko 21 eta 37 zenbaki artekoan. Atsobakar eta parke botanikoen artean dagoen berdegunean, Arranbide auzoa eta Tribuna kaleko etxeen arteko berdegunean.

Era berean, 18:00etatik

11:00etara lasai ibili daitezke honako lekuetan: Goiegi parkea, Loidi parkea, Urdaburu plaza eta Antxota kalearen artean dagoen parkea, San Marcial plaza, Somoto parkea eta Zumaburu parkea, Oztaran parkea. Caddie plaza, Orián Brunet parkea, Antxisu parkea.

Askatasun parkean udan 23:00etatik 10:00etara eta neguan 21:00etatik 10:00etara baimena dute.

"Froilan Elespe" Parke Botanikoan, Atsobakar parkean eta Tximistarreta parkean, berriz, debekatuta geratzen da txakurrak eta gainerako etxe abereak, eguneko edozein ordu dela ere berdegunean egotea.

Isunak

Araudi honetako puntuak betetzen ez dituzten herritarrek isun ekonomikoak jasango dituzte.

Hutsegite arinak 750 euro artekoak izan daitezke eta larriak berriz, 3.000 euro artekoak. Gorotzak ez jasotzeagatik esate baterako, 600 euro arteko isuna jaso daitezke.

Aurrekariak

1996 urtean onartu zen aurreko araudia eta legearen arabera hau eguneratzeko beharra zegoen. Horregatik, Udalak araudi hau herritarrekin adosteko konpromisoa hartu zuen. Herritarrekin bilek egin zituen 2013 urtean zehar, araudia findu eta ekarpenak txertatzeko.

2.
FASEA

www.garraioahobetzen.net



herriarrek
martxan en marcha

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela
kargatzeko 20 euroko bonoak
zotz egingo ditugu.

Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

Lasarte -Orian

EGUNA: Apirilak 9

ORDUA: 18:30ean

LEKUA: Villa Mirentxun

ERRUGBIA.-

Garaipenik ez
Atleticoren aurka

Igandean, errugbiaz gozatze-ko goiza izan zen kirol gunean. Lehenik eskolako gaztetxoaren entrenamendua izan zen eta ostean, Beltzak Ostadar Jalai taldeko 14 urte azpiko eta 16 urte azpiko taldeek Atletico San Sebastian taldea izan zuten aurrez aurre.

14 urte azpiko taldeak ez zuten aukera askorik izan. Donostiako taldea nagusi izan zen hasieratik eta Lasarte-Oriako ezin izan zuten ezer egin.

16 urte azpiko taldeen partidak eman zion amaiera goizari.

Taldeko arduradunek aipatu dutenez, Beltzak Ostadar Jalai taldeak joko ederra erakutsi zuen bai defentsa baita erasoan ere. Hasieratik lehiakor agertu ziren taldeak eta ez zioten Atleticori erraz jokatzen utzi.

Garaipena aldiz Donostiako taldearentzat izan zen, 29-25, azken minutuan lortutako entsegu batekin.

IGERIKETA.-

Villamediana infantila Euskadiko txapelkun

Igerilari gazteek Espainiako txapelketarako hiru marka gutxieneko lortu zituzten

Buruntzaldea IKTko infantil mailako gaztetxoek urre bat, zilar bat eta bi brontze lortu zituzten Euskal Herriko txapelketan. Bestalde senior eta juniorrek ez zuten zorte askorik izan Zaragozako nazioarteko sarian.

TXINTXARRI

Infantilen Euskal Herriko txapelketa izan zen, martxoaren 8 eta 9an, Tolosan. Honetan Buruntzaldea IKT-ko bost igerilari izan ziren lehian eta "bikain aritu ziren markak nabarmen hobetuz" aipatu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Nahia Jie Villamedianak 200 m. eta 100 m. bizkar, eta 200 m. estiloak probetan parte hartu eta hiruetan podiumean izan zen, urrezko domina, zilarrezkoa eta brontzezkoa lortuz, hurrenez hurren.

Gainera, bizkar probetan Espainiako txapelketarako marka gutxienekoa lortu zuen.

Ainara Garcia ere ez zen esku hutsik bueltatu. 100 m. bular proban hirugarren pos-

tua eskuratu zuen, baita Espainiako txapelketarako txartela ere. Beraz, Villamedianarekin batera Bartzelonan uztailean ospatuko diren Udako txapelketan izango dira. Honetaz gain, 100 m. estilo proban bere marka hobetu zuen.

Janire Berasartek 800 m. libre proban "patal ibili bazen ere" bosgarren postuan izan zen. Baina 100 m. bizkar eta 400 m. libre probetako markak nabarmen hobetu zituen.

Nora Irazustak ere bere markak hautsi zituen 200 m. bizkar, 200 m. estilo eta 100 m. libre probetan. Bizkar proban gainera laugarren izan zen.

Mutil bakarra izan zen lehiaketa honetan, Mikel Soto. 200 m. bular proban laugarren postua eskuratu zuen eta



Nahia Jie Villamediana urrezko dominarekin podiumean.

BURUNTZALDEA IKT

bere marka ere hobetu zuen. 200 m. libre proban ere ederki ibili zen eta marka personal berria egin zuen.

Errelebuak

4x100 m. eta 4x200 m. libre probetan lehiatu ziren Buruntzaldea IKT-ko neskek. Bi probetan markak hobetzea lortu zuten, posta bakoitzeko igerilariak marka personala egin baitzuten.

Nahiz eta 4x100 m. estiloetan taldea deskalifikatua izan, Espainiako gutxienekoa lortzeko aukerak dituztela uste du entrenatzaileak.

Nazioarteko saria

Bestalde, larunbatean "Zaragoza Hiria" nazioarteko sarian izan ziren Mikel Ensal, Haitz Mitxelena, Iñigo Ibarburu eta Naiara Lizaso.

Ensal seigarren izan zen 50 m. libre proban. Mitxelena 100 m. tximeleta proban eta Ibarburu 50 m. libreko bere marka onenetik gertu ibili zen.

Helburuak ez ziren bete Apeztegiaren esanetan, baina asteburu honetako GIF Sarian beste aukera bat dutela aipatu du.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 22
Matigoxotegi, Donostia, 09:00etan
Internacional-Ostadar
I. kadetea, kopa
Michelin, 10:00etan
Ostadar-Beti Ona
I. infantil, txapelketa fasea
Cesar Benito, Donostian, 10:00etan
Lengokoak-Ostadar B
I. infantil, kopa
Urnieta, 10:30ean
Urnieta-Ostadar
Infantil txikia, partaidetza, txapelketa fasea
Michelin, 11:30ean
Texas Lasartearra-Sporting de Herrera *I. Jubenila, kopa*
Michelin, 13:15ean
Ostadar B-Sanse *I. kadetea, kopa*
Michelin, 15:30ean
Ostadar-Burumendi *I. Jubenila, igoera*
Ondartz, Hondarribi, 16:30ean
Hondarribi-Ostadar
Jubenilen Oharrezko maila
Michelin, 17:15ean
Ostadar-Berio
Erregional Oharrezko maila
Ubitarte, Andoain, 19:15ean
Ontzerri-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa
Igandea 23
Michelin, 10:30ean
Ostadar-Danok Bat
Euskal Liga, Kadeteen Oharrezko maila

Rezola, Donostia, 17:00etan
Antigua Luberri-Ostadar
Emakumezkoen Liga, kopa
Berio, Donostia, 17:15ean
Astigarragako Mundarro-Ostadar
Alebrina, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 21
HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, El Punto-Izkiña
20:45ean, Viña del Mar-Izarra

Larunbata 22

HERRIKO TXAPELKETA
09:15ean, Buenetxea-Indaux
10:15ean, Trumoi-Arkupe
11:15ean, Ilargi-Txindoki
12:15ean, Urdaneta-Aritzta
Kirolegia, 15:30ean
ISU Leihoak-Oiartzun *Gipuzkoako Liga*
Landako kiroldegia, Durango, 19:30ean
Sasikoa Durango-Aldaz H.K.
Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 22
Azpeitia, 09:00etan
Iragaz ISB-Ostadar SKT
Nesken kadete maila, errendimendua
Kirolegia, 18:00etan
Ostadar SKT-Eskoriatza
Nesken junior maila, partaidetza

GIMNASTIKA

Larunbata 22
Ibarra, 12:00etan eta 17:15ean
LOKEko gimnastek eskolarteko eta amateur txapelketako bigarren jardunaldia dute.

ATLETISMOA

Larunbata 22
Anoetako Belodromoa, 10:00etan eta 16:15ean
Yeray Veroniz LOKEko atletak junior mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du.
Azkoitia, 16:15ean
Herriko hainbat atletek II. Azkoitia Azpeitia herrikoian parte hartuko dute.
Azkoitia, 16:30ean
Herriko atletak Diego Garcia oroimenezko XXI. Azkoitia Azpeitia nazioarteko maratoni proban izango dira lehian.

Igandea 23

Donostia, 09:30ean
Herriko hainbat korrikalarik Donostia-Hondarribi Talaia bidean lasterketan parte hartuko dute.
Errenteria, 10:00etan
Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeetako alebin eta infantil mailako atletak Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia izango dute.

Atsotakar, 11:00etan
Euskal Krosa-Eneko Castro oroimenezko ospatuko da.

IGERIKETA

Larunbata 22
Paco Yoldi kiroldegia, Donostia, 10:00etan eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak GIF Saria-n lehiatuko dira.

TENIS

Larunbata 22 eta igandea 23
Kirol guneko pista
Lasarte-Oria ATG txapelketako partidak izango dira.

ERRUGBIA

Larunbata 22
Zarautz
14 urte azpiko Beltzak Ostadar Jalai taldeko hainbat jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin entrenatuko dira.
Aiete, Donostia, 11:30ean
Atletiko San Sebastian-Beltzak Ostadar Gure Etxea *18 urte azpikoak*

Igandea 23
Hernani

16 urte azpiko Beltzak Ostadar Jalai taldeko hainbat jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin entrenatuko dira.

Anoetako Miniestadioa, Donostia, 10:30ean
Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebin eta benjaminek topaketa dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 22
Beasain, 10:30ean
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak XXXII. Usurbur lasterketan parte hartuko dute.
Bergara, 16:00etan
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak LI. Labegarietako sarian lehiatuko dira.
Zarautz, 16:30ean
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Zarautzko Saria proban parte hartuko dute.

Igandea 23

Biyak Bat elkarte, 09:00etan
Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Iraetara egingo du irteera.
Egia, Donostia, 10:30etan
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak LI. Zummy sarian lehiatuko dira.

BOLA-JOKOA

Igandea 23
Legazpi, 10:00etan eta 16:30ean
Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Lehendakari txapelketako saioa du.

Agenda

Ostirala 21, gaur, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan



Ahots gazteez gozatzeko parada

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen barruan Ore-reta abesbatzak kontzertua eskainiko du. Estilo eta garai desberdinetako doinuak entzun ahalko dira Andra Mari abesbatzako harrobiko taldearen eskutik. Imanol Elizasuk zuzentzen duen taldeak izen handia du haur abesbatzen munduan.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 21, 22:30ean

Insolenzia taldearen rock doinuaz gozatzeko kontzertua.

Ostirala 21, 23:55ean

Unai Bellamy Dj-en musika elektronika saioa izango da.

Larunbata 22, 22:30ean

Flamenkoa gustuko dutenek, La Hungara-ren kontzertuaz gozatu ahalko dute. Sarrera, aurretik 15 euro gehi kudeaketa; leihatilan, 18 euro.

Larunbata 22, 23:55etan

Sumeria-en eskutik musika elektronika emanaldia izango da.

Andoain

Dantza

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 21, 14:30ean

Dantzaz konpainiak Kamaleoiak lana aurkeztuko du. Sarrera, 10 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "El caballero don Latón" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 23, 19:30ean

Helduentzako zinea, "La ladrona de libros" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 21, 21:30ean

Emaizta taldeak "Esperando a la inglesa" antzezlan eskainiko du. Lasarte-Oriako antzerki amateur eskaintzeko ekimena. Emakumeen Zentroko antzerki taldeak proposatua. Sarrera aurrealmenta 3 euro; egunean bertan, 5 euro.

MANUEL LEKUONA

KULTUR-ETXEA

Larunbata 22, 18:00etan

Gorakada teatroak "Aladino" haur antzerkia eskainiko du. Sarrerak internet bidez, 2,70 euro; leihatilan, 3 euro. Euskaraz



Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 27, 18:00etan

3-5 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurketa izango da.

Astigarraga

Gazte Eguna

J. M. BARANDIARAN PLAZA

Larunbata 22

Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte olimpiada, bazkaria eta hainbat ekintza.

Literatura solasaldia

UDAL LIBURUTEGIA

Astelehena 24, 19:30ean

Jeanette Winterson Lumen idazlearen "¿Por qué ser feliz cuando puedes ser normal?" liburuaren inguruko solasaldia izango da. Gaztelaniaz.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da martxoaren 24an, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide

elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak astartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Dagokionari...



Errepideen egoera kaxkarra

Lasarte-Oriako errepideen egoerak asko kezkatzen ditu herritarrak. Izan ere, ibilgailuek ondorio latzak izan ditzakete errepideetan dauden zuloak ikusi ez gero. Hainbat dira sare sozialetan haien kexa zabaltzen duten herritarrak eta gurera ere iritsi da gaia.

Pablo Mutiozabal kalean aurki daitekeen zuloa bidali digute adibide gisa. Bertako bizilagun batek aipatu digunez, Udala arazoa konpontzen saiatu da behin baino gehiagotan petatxo bat jarriaz, baina bertatik igarotzen den kotxe kopurua kontuan izanik hau gastatu eta zuloa agertzen da berriro ere. Kasu honi eta herrian dauden beste hainbat zuloei konponbidea jartzea eskatzen da.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Ana Prieto Lanak eta Zerbitzu Publikoak batzorde burua

“Arduraz jokatu behar dugu”

Bere saileko diru partidarekin ahalik eta gauza gehien egiten saiatu direla dio nahiz eta jakitun izan herritarrentzat hainbatetan, nahikoa izan ez dela

2014ko aurrekontuekin itxaropentsu dago Ana Prieto. Lan eta zerbitzu publikoen ardura hartu zuenetik, diru partidaren parte handia Udaletxe berrira bideratu behar izan da eta herrian dauden gainontzeko beharretara iristeko motz geratu dira. Dena ondo bidean, alderdiek aurrekontuak onartzen badituzte, 2014 honetan Kale Nagusia, Pablo Mutilo, Pintore eta Juan de Garai kaleak osorik asfaltatuko dira eta Manttangorri Mugi txartelaren sisteman integratuko da. Horretaz gain, Orian parke berria jarriko dela aurreratu digu eta beste hainbat konponketa burutuko direla ere.

Maidar AZURMENDI

Ana Prieto LOHP-ko zinegotzia da Lanak eta Zerbitzu Publikoen burua. Jakitun da herriko kale, parke asko ez daudela egoera onenean baina bizi dugun egoera ekonomikoak baldintzatzen ditu inbertsioak. Besteak beste, bere sailean garai bateko kudeaketa pertsonalistarekin amaitu duela dio. Sailean dauden langileen lana azpimarratu nahi izan du, izan ere, brigada nabarmen murriztu da azken urteetan eta dauden baliabideekin ahalik eta gehiena egiten saiatzen dira.

Zerbitzuetako ardura hartzerakoan zein egoera aurkitu zenuen?

Lehenengo, lan talde langilea, ona eta kolaboratzailea aurkitu nuen. Bestetik, arazo nagusia zen azken urteetan aurrekontuen diru partida gehienak udaletxe berriaren eraikuntzara bideratuak izan zirela eta oinarriko gauzak erabat baztertuta zeudela. Inbertsioak egiteko garaiak Madrildik jarritako neurriek nabarmen murriztu dute gastu eta inbertsio ahalmena ere.

Adibidez, azken urteetan udaletxe berriko altzariak erosi behar izan dira baita Atsoak zahar egoitzarako ere. Inbertsio hauek zuzenean erabiltzaileek nabaritu dituzte ez herritarren gehiengoak.

Bestetik, brigada nabarmen murriztu dela ikusi nuen sartu eta berehala. Azken urteetan jubilatutako langileak ezin izan dira ordezkatu.

Udalaren egoera ekonomiko asko aldatu da azken urteetan?

Bai nabarmen eta sail guztietan eragina izan du. Ni 2007an sartu nintzen zinegotzi bezala eta orduan, 2008rako 45 milioi euroko aurrekontua onartu zen. 2014ean, 24 milioi euro ingurukoa izango dela aurreikusten da.

Diferentzia handia da. Garai batean diru sarrerak eraikuntza berriei esker sartzin ziren baina egun ohiko diru sarrerak soilik ditugu, zerga bidezkoak, Aldundikoak... Errealistak izan behar gara, arduraz jokatu eta dagoenarekin lan egin.

Lan egiteko modua aldatu egin duzu sailean?

Diruaren aldetik esan bezala, gastua asko kontrolatzen da. Ez da gehiago erosten badaezpada eta zerbait erosteko garaietan hainbat aurrekontu eskatzen dira.

Ardura hartzeko garaietan kontratatu nintzen ere zein modutan kudeatzen ziren azpikontratekin genituen kontratuak. FCCkoa begiratzen hasi ginenean adibidez, konturatu ginen udalak moto bat erosi zuela txakur kaken garbiketarako eta moto hori ez zegoen inon. Hortik aurrera sakonki aztertu eta neurriak hartu dira.

EULEN-ekin dagoen kontratua ere begiratu zen eta orokorrean, egiten dituzten lanen jarraipen zorrotza egiten da egun. Adibidez, iaz hitzartutako maiztasunarekin ez ziren udaletxeko kristalak garbitu eta ondorioz, aurten hainbat garbiketa burutu behar izan ditu enpresak doan. Kontratua bizi dugun egoera ekonomikora neurritu digu eta udaletxe berria garbitzeko ez da kontratua handitu adibidez.

Ordurarteko kontratu hauen kudeaketa pertsonalistarekin amaitu digu. Teknikoak kanpo geratzen ziren enpresa eta udal ordezkarien arteko bileretatik eta hori niretzako oso larria zen, teknikariek dute zerbitzuen ezagutza osoa eta hauek dagokie ere mahaiaren egotea. Negoziazioan funtsezkoak dira.

Herriko kaleen garbiketa zerbait aldatu al da?

Garbiketari dagokionez, orokorrean, 2014ko aurrekon-



tuetan FCCren kontratuan igoera bat aurreikusi dugu beti ere, aurrekontuak onartzen badira.

Orain arte zerbitzua berdin mantentzen zen eta azken urteetan eraiki diren guneak direla eta, nabaritu egin da garbiketa zerbitzua motz geratzen dela.

Proposatuko dugu astelehenean larunbatera pertsona eta erdi gehiagoren lana gehitzea. Bestalde, duela urte batzuk kendu ziren langileen opor ordezkapenak eta orain hauek egitea eskatuko diogu enpresari. Bi neurri hauekin garbiketan hobekuntza nabaritu beharko genuke.

Beste gai bat da kartelena. Azken hitza beti alkateak dauka eta nik azaldu diot behin baino gehiagotan nire ustez kartelak jarri bai, baina behin iragartzen duten ekitaldia pasata, kendu egin behar direla. Udaltzarrean onartu zen mozioa dela eta suposatzen dut gauzak aldatu egingo direla.

Asfaltatuaren egoeraz kexa dezente entzuten dira kalean...

Bai hala da eta jakitun gara gure errepideen egoeraz. Iaz ezin izan ziren asfaltatu lanak egin, ia 500.000 euro genituen zerbitzuen sailean eta parte handi bat Atsoakarreko altzarietan gastatu zen. Aurtengoa, Kale Nagusia osoa, Pablo Mutilo, Pintore Kalea eta Juan de Garai kaleak asfaltatu egingo dira, 273.000 eurotako inbertsioa izango da eta udan egingo dira lanak.

Badakigu beste kale batzuk ere gaizki daudela baina fase desberdinetan egitera

behartuta gaude aurrekontua dela eta.

Merkatariek ordutegi zabalagoa eskatzen dute Manttangorrirentzat...

Bai hala da baina momentuz ez da zabalduko. Aurrerago aztertuko dugun gaia izango da. Zerbitzuaren erabilera egonkortzea bilatzen dugu.

Eta horretarako albiste onak ditugu. Manttangorri lanean hasi zenean, Aldundiaren hitz egin zen Lurraldebusean sartzeko baina suposatzen zuten inbertsioa kontutan hartuta, momentuz zerbitzua mar txan jarri eta gaia aurrerago hartzea erabaki zen. Iaz martxoan, Mugi txartel bakarra sartu zen indarrean eta aurten bai 38.000 eurotako inbertsioa eragingo dugu, ekipoak moldatu eta txartelak Manttangorri ere balioa izan dezan.

Mugirekin bat egitea suposatuko du Gipuzkoako garraioaren agintaritzan sartzeta eta hau alderdiek babestu beharko dute plenoan.

Egin beharrekoak eginda, espero dut herritarrek ahalik eta lasterren onuradun izatea txartel honek eskaintzen dituen deskontu eta abantailak.

Herriko haur parkeak berritu egin dira, Orian kendu... zeintzuk dira hartutako erabakiak gai honetan?

71.000 euro inbertitu nahi ditugu aurten hainbat parke hobetzeko. Lehentasuna izango da Oriako. Armiarma bat zegoen oso egoera txarrean eta kendu genuen ziurtasun faltagatik. Datozen hilabetetan parke berri bat jarriko da.

Elementu solte batzuk erosi

nahi dira puskatzen diren jolas-asko aldatu ahal izateko.

Argiteria falta ere salatu dute herritarrek gune batzuetan. Nola dago egoera?

Aurreko legegintzaldian aurrezteko hainbat zonaldean argia itzaltzen zen gaueko hamarretan. Orain txakurren ordenantza berria lantzean, zonalde horietako batzuk kointziditzen dute eta agindua eman da hauek argizatuta mantentzeko.

Bestalde, zonalde batzuetan kablea lapurtu egin dute behin baino gehiagotan eta pixkanaka ordezkatzen joan gara. Jendeak aipatzen duen beste gunea Froilan Elespe parkea da. Lurra Usurbil erositako baina mantenua berari dagokio. Hor ere kablea lapurtu da eta ordezkatzea esan bezala, Usurbilgo udalari dagokio.

Ohiko kale-argietan LED teknologian oinarritutako aurrezpen energetikoaren aldeko apustua egin da.

Nola baloratzen duzu sailean egindako denbora hau?

Asmo asko genituen baina hainbeste murrizketekin aurkitzea, frustrazioa eragin izan dit. Kasu batzuetan zuk zeuk ikusten duzu konponketa bat egitea beharrezkoa dela baina ezin duzu, ez dago dirurik. Kexatzerik datozen herritarrei ere egoera zein den azaltzen saiatzen naiz.

Bestetik, Plataformaren asmoa da legegintzaldia amaitu eta 2015eko aurrekontuak onartuta utzi hasitako ekimen eta lanek bukaera edo jarraikortasuna izan dezaten.